

AEBak Somalian ari dira probatzen ezkutuko gerra inperial berria



Pello Zubiria Kamino

@pellozubiria

Barack Obamaren administrazioak azken hilabeteetan biziagotu du gerra klandestinoa Somalian, Afrikako kostalde idor hartako etsai islamistaren aurkako erasoan erabiliz eliteko tropa bereziak, airezko erasoak, kontrata pribatuak eta Afrikako aliatuak. Obamaren herentzia eraisten ahaleginduko den Donald Trumppek bere eginen du AEBetako armadak sustatu eta Hillary Clintonek finkatutako gerra modu berria.

Hamabi milioi biztanletik milioi erdik bizia galdu eta milioi bat gehiagok herrialdetik ihes egin behar izan ostean, itzali gabe jarraitzen du Somaliako gaztaka kasik ahaztuak, nahiz eta Muqdisho hiriburuko gudu txiki batek lortu zuen *best seller* izatea *Black Hawk Down* izeneko liburu, film eta bideo-jokoekin. Ahaztua edo ezkutatua bai albistegieta-tik, baina inperioko militarrek oso hurbiletik zaindua beren estrategia berrien laborategi bihurtu dutelako.

Huts egindako estatuen eredutzat aipatu izan da Somalia, azalpen handiegirik eman gabe zerk eta nola eraman duen hondoa jotzera. Mohamed Siad Barre jeneralak 1990ean agintea galdu zuenetik ez du herrialdeak gutxieneko egonkortasunik aurkitu, alde batetik militar iparramerikarrak eta inguruko herrialdeetakoak –Kenya, Etiopia...– lehenik trantsizioko gobernua eta orain gobernu federala sostengatu nahian, bestetik lekuko leinuetako armada txikiari eta Al-Qaeda edo Estatu Islamiarri lotutako gerrillariak.

Joan den urrian *New York Timesek* argitu du urrutiko gerra galdu haren garrantzia, Mark Mazzeti, Jeffrey Gettleman eta Eric Schmittek sinatutako “Somalian AEBak ari dira indartzen itzalpeko gerra” kronikan: “Somaliako kanpaina da gerra eredu bat Obama lehendakariak bere egin duena eta ondorengoari pasatuko diona. Horixe da AEBek gaur darabilten eredu Ekialde Hurbilean bezala Afrikako ipar

–Siriatic Libiara– gaudituz Obamak munduko gerra eremuetan amerikarrak oinak jartzeari dion biguina. Aurtent bertan AEBek aireko erasoak burutu dituzte zazpi herrialdetan eta operazio bereziko misioak askoz gehiagotan”.

Muqdisho hiriburuan 1993an amerikarrek galdu zutenetik ebakuazio ahaleginean ari zen helikoptero bat gerrillarien misilek jota –barruan zeramatzen 18 soldaduekin–, urruneko guduetan gizonik ez hiltzea izan da luzaz AEBetako armadaren lehentasuna, baina urteak ez dira alferrik pasatu eta Somalian erakutsi dute ostera arrisku berrietan sartzeko prest daudela.

Obamaren aroan lehendakari iparramerikarrak aginte zabalagoa eskuratu du Somalian bortxa erabiltzeko, ofizialki Al Shabab gerrilla islamistaren erasotatik babesteko AEBetako eta Afrikako tropak. “Pentagonoak –dio *New York Timesek*– gerrako albisteak ematerakoan operaziook lausotzen ditu ‘auto-defentsazko eraso’ izenpean, baina zenbait analistak uste du hitz egiteko modu hori ez dela denborarekin egia bihurtu dakin esandako profetia baino”.

Bere 9.000 gudari ingururekin, Al-Qaeda obeditzen dion Al Shabab taldea izango da Somalian arrakasta handinez aurre egiten diena amerikarrei eta AMISOM Afrikako Batasunaren Somaliarako Misioak ezarritako gobernuari. Urteotan hainbat porrot militar jasan, hiruburuaren kontrola galdu eta *drone* yanki batek berrikitan Moktar Ali



Zubeyr buruzagia hil arren, ahalmen militarra ez du galdu. 2013an Al-Shabab iritsi zen Kenyako hiribururaino, bertako erasoan 60 lagun hilaz.

Al Shababen kontra aritzeko AEBek operazio berezietako 300 militar dauzkate, Somalian AMISOMen babesean ari diren Kenya, Uganda eta bestetako soldaduekin elkarlanean. Hilero dozena erdi erasotik gora antolatzen dituzte, lurreko operazioak airetik dronez osatuz. Operazio horietan parte hartzen du AEBen Itsas Armadako SEAL Team 6 unitate bereziak, zeinari buruzko informazioak sekretutzat sailkatuta dauden. Borroketan atxilotutakoaren galdeketetan ere hartzen dute parte.

Gerra azpikontratatuaren logika berria

Zenbait aditu ari dira ohartarazten aireko erasook, auto-defentsa moduan justifikatu arren, derrigor ekarriko dutela gerraren gogortzea, eta Afrikako militarrei laguntzera joandako eliteko militar yankiak gero eta sarriago jarriko direla Al Shababen jomagan.

Kontua da Somalian militar amerikarren eta afrikarren ondoan gerran berezitatuko kontratista pribatuak ere ari direla. Mertzenarioak, alegia. Zehazki, *New York Timesek* aipatu du Bancroft Global Development konpainia, egoitza Washingtonen duena: “Urteak daramatza Estatu Departamendurekin lanean Afrikar Batasunako tropak entrenatzen eta horiekin nahastuta parte hartzen Somalian operazio militarretan”.



Joe Penneyren argazkian, militar iparramerikar bat lekuko soldaduak trebatzen Somalian. Gerra kasik ahanzi hau darabilte AEBek bere gerra inperialak burutzeko estrategia berrien laborategizat. XXI. mendeko gerretan amerikarrek urrundik gidatzen dituzte erasoak, lekuko lan handiena azpikontratetako mertzenarioek eta inguruetako herrialdeetako tropek burutzen dute eta komunikazio enpresa handiekin hitzartzen dute herritarrenganaino zein informazio helarazi.

Bancrofteko buru Michael Stockek kazetariari aitortu die Danab izeneko talde somaliarra osatu dutela. Errekrutatatu ondorengo lehen entrenamenduak Muqdishon egin ostean, Baledogleko base militarra eramaten dituzte, AEBetako marineekin hobeto prestatu ondoren Al Shababeko gerrillarien kontrako guduetan murgiltzeko. Stockek esan du helburua dela unitate militar somaliar bat antolatzea, Al Shababekoen aurka ez errepikatzeke Afganistan eta Iraken egindako pettoak; hauetan AEBek milaka milioi dolar gastatu zituzten armada handiak prestatzen, azkenean espero baino etekin kaskarragoak lortzeko.

Somaliako ereduko gerra berrietan, inperioak *incognito* moduan jokatzeko du eta lortzen du AEBetan bezala herrialde aliatuetan gaiak interesa galtzea. Hedabiderik apenas azaltzen den pa-

rajeotatik. Finantziarioa CIAren eta armadaren kontu sekretuetatik doa, sarritan Saudi Arabia bezalako bazkide bati emanarazita. Gerrako ekintzengatik erantzukizunak, berriz, pribatizatu egiten dira gerraren zati osoak kontratista pribatuei azpikontratatu.

Abenduan *Mint Press News* hedabide amerikarrak analisiok osatu ditu xehetasun argigarriak: "AFRICOM izeneko inperio sekretua: AEBetako armadak nola bihurtu duen Afrika gerra modernoaren laborategi". AFRICOM da AEBen 9 gudu komandoetatik bat, Alemaniatik gidatzen dituen Afrika 53 herrialdeetako operazioak.

Nick Turse kazetari eta unibertsitarioren arabera, Obamaren administrazioak urteotan izugarri handitu du militar iparramerikarren presentzia Afrikan. 38 herrialdeetako 60 gunetan

daude amerikarrak, baina ez orain arte egiten zuten moduan, base militarretan.

Djibutiko baseaz landa inon ez dago tropa, arma edo hegazkin pilaketa handirik. Aldiz, militarrek *nenufar* deiturara xarmangarri ('lily pad' ingelesez) bataiatutako 60 txoko diskreto horiek datzate Afrikako edozein aireportu, kai, base edo erregai hornidurazko egoitzatan, berdin Egiptoko ikerketa medikuko zentro batean edo Kenyako portu batean: AEBetako armadaren egitura txikiak behar den unean askoz indar militar handiago bat bildu eta zabaltzeko prestatuak daude.

Pentagonoak aurreratuta dauka islamisten kontrako gerraren gidaritza lau gune nagusitan berrantolatzeke plana. Afrikako gatazkak estrategia berriarekin kontrolatzeko nodoa Europa Hegoaldean lihoake, agian Espainian. ■



zuri begira



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

